

Irailaren 10a: Suizidioaren Prebentzioaren Nazioarteko Eguna


EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen heriotzen %16ren kausa 2009an suizidioa izan da.

Suizidioaren Prebentzioaren Nazioarteko Eguna dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) hainbat datu bildu du gazteen heriotza-kausei buruz, zehazki, suizidioak biztanle-talde horretan duen intzidentziari buruz.

Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saileko Ezagutzaren Gestio eta Ebaluazioko Zuzendaritzaren mendeko [Erregistro eta Osasun Informaziorako Zerbitzuak](#) emandako datuen arabera, 15 eta 29 urte bitarteko 103 gazte hil ziren EAEn, 2009an. Heriotza horietako 16ren kausa suizidioa izan zen. Trafiko-istripuek bakarrik eragin dute suizidioek baino heriotza gehiago: 22, hain zuzen ere.


Gazteen heriotzetan suizidioa arrazoirik pisutsuenetako bat bada ere, EAEn 2009an egondako 167 suizidioen %10 baino ez dagokie 15 eta 29 urte bitarteko gazteei. Suizidioaren ziozko hilkortasun-tasa espezifikoak apalagoa da gazteengan (5 100.000 gazteko) Euskadiko biztanleria osoarengan baino (7,68).

Azken hamarkadan, gainera, beherakada handia gertatu da (%48koa) gazteen suizidio-kopuruan: 1999an 33 kasu izan ziren eta 2009an, 16.



Daturik esanguratsuena eta gazteengan suizidioa prebenitzeko inplikaziorik handiena duena gizonen eta emakumeen arteko aldea da. Mutilen suizidio-tasa neskenaren halako lau izan zen 2009an: emakumeen tasa 1,83koa da 15 eta 29 urte bitarteko 100.000 emakumeko; gizonena, ordea, 8,11koa 100.000 gizoneko. Gizona izatea arrisku-faktorea da, bai eta beste kausa edo aztura batzuetarako ere: trafiko-istripuak edo droga-kontsumoa, kasu. Suizidioaren prebentzioak, beraz, genero-aldeei erreparatu behar die.

**Suizidioagatiko hilkortasun-tasa espezifikoa
15 eta 29 urte bitarteko gazteengan, EAEn.
2009 (tasa 100.000ko)**



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Osasun eta Kontsumo Sailak emandako datuetatik abiatuta.